



LEHENDAKARIAK GASTEIZKO MARITURRI IKASTETXEAREN ERAIKIN BERRIA BISITATU DU

Haur eta Lehen Hezkuntzako 418 neska-mutilak Aste Santuko oporretatik itzultzean hasiko dira instalazio berriak erabiltzen

Iñigo Urkullu Lehendakariak, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarekin batera, Gasteizko Mariturri Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen eraikin berria bisitatu du gaur goizez. Azpiegitura berriak Arabako hiriburuan azken urteotan biztanleria-hazkunderik handiena izan duen auzo baten hezkuntza-premiei ematen die erantzuna, Zabalgana barrutiko premiei. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak 5 milioi pasatxo bideratu ditu eraikin berria jasotzeko.

418 ikasle (292 Haur Hezkuntzakoak eta 126 Lehen Hezkuntzakoak) eta horietaz arduratzen diren 32 hezkuntza-profesionalak (17 Haur Hezkuntzakoak eta 15 Lehen Hezkuntzakoak), Aste Santuko oporretatik bueltan itzultzean hasiko dira eraikin berrira erabiltzen.

Bere jarduna 2009-2010 ikasturtean 2 eta 3 urteko hurrekin hasi zuen ikastetxea izanik, Mariturri HLHI-k Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko ikasleak ditu (2 urtetik 10era). Ondorengo bi ikasturteetan (2016-2017 eta 2017-2018an) falta zaizkion bi ikasturteak osatuko ditu ikastetxeak, Lehen Hezkuntzako 6. mailara irisi arte. Horrela, eraikinak 720 ikasle ingururentzako duen gaitasuna beteko du.

Eraikin berria Mariturrin

Behe solairua eta horren gainean eraikitako beste bi solairutan banatzen dira Mariturrin ikastetxe berriaren instalazioak. **Behe solairuan**, jangela eta administrazioarako gunez gain, 2, 3 eta 4 urteko haurren gelak kokatzen dira. Gela hauek umeen komunak partekatzen dituzte, eta kanpoko jolasleku estali baterako irteera zuzena dute. Kautxuz eginiko segurtasun zorua dauka aipaturiko jolastokiak. Gainera, gela hauetako bakoitzak sarrera gisako gun bat ere badu, arropategi eta guztikoa, gelak txukun izaten eta haurren etorrera antolatzen lagunduko duena. Behe solairuan, horiez gain, honako hauek ere badaude: lo-kuluxka egiteko gela, psikomotrizitate gela, biltegiak eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako gimnasioa.

Lehen solairuan, 5 urteko haurren gelekin batera, Lehen Hezkuntzako ohiko gelak, talde txikientzako gelak, liburutegia eta Hezkuntza Premia Bereziaketako gunea daude. Azken honek bere komun egokitua izango du. **Bigarren solairuan** berriz, Lehen Hezkuntzako gainerako gelak ezarri dira. Kanpoan, azkenik, Mariturri HLHI-k kirolerako hiru pista zabal ditu, horietako bat estalia, eta guztiak ere gimnasiotik hurbil kokatuak.

Energia aurrezpena eta iraunkortasuna

Ikastetxearen diseinuan eraikuntza bioklimatikoak eskatzen dituen estrategiak hartu dira aintzat: ikasgelen orientaziotik hasi, eguzki izpiengandiko babesarekin segi, eta instalazioen diseinuarekin nahiz eraikinaren aireztapen baldintzekin amaitu, beti ere eraginkortasun energetikoa eta iraunkortasuna irizpide hartuta. Erabili diren eraikuntza-sistemen ezaugarri termikoak eta isolamendu gaitasuna ere kontuan izan dira.



Oinean *L* forma duen eraikin berriak, bat egiten du ingurunearekin teilatuen malda – isuri bakarrekoa- alderik pribatuenera etzanez, barneko patiorantz eta kirol pistetarantz. Irudi urbanoa erakusten du kale aldera eraikinak (etxebizitza-dorreak dauden aldera), eta irudi *gizatiarragoa* berriz, jolastokia dagoen patiora.

Mariturri HLHI eraikin berriaren ezaugarri nagusiak:

- 31 ikasgela arrunt: 2 urteko 4 gela; 2-5 urteko 9 gela; Lehen Hezkuntzako 18 gela
- Talde txikientzako 3 gela
- Hezkuntza Premia Bereziak 2 gela
- Informatika gela
- Musika gela
- Ikus-entzunezkoen gela
- Psikomotrizitate gela
- Erabilera anitzeko gela
- Lo kuluxka egiteko gela
- Liburutegia: 127 m²
- Gimnasioa eta aldagelak: 289 m²
- Kanpoko patio estalia (Haur Hezk.), 223 m²
- Aterpea (Haur Hezk.), 294 m²
- Jolastoki estali gabea (Haur Hezk.) 402 m²
- Pista estalia, 1.074 m²
- Pista estali gabeak, 1.936 m²

- Eraikitako azalera orotara: 6.193 m² + 4.488 m² kanpoko pistatan
- Esleipenaren aurrekontua: 5.095.972,80 € (BEZ barne)
- Solairuak: behe solairua + 2 solairu gainean
- 729 ikasle hartzeko gaitasuna

Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an